

AGINTARIAK ETA LANGILEAK

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

HEZKUNTZA SAILA

1903

EBAZPENA, 2026ko apirilaren 23koa, Langileriaren Kudeaketa zuzendariarena, deialdian eskatutako baldintzak betetzen dituzten hautatutako pertsonen lan-kontratuak formalizatzeko epea ezartzen duena, eta enplegua egonkortzeko salbuespenezko prozesuan hautatutako pertsonen hirugarren zerrenda osagarria argitaratzen duena, Hezkuntza Saileko lan-kontratuko hezkuntza-langileen lan-kategorietako lanpostuak modu finkoan betetzeko.

Hezkuntzako sailburuaren 2022ko abenduaren 20ko Aginduak (2022ko abenduaren 29ko EHAA), enplegua egonkortzeko salbuespenezko prozesurako oinarriak onartu zituen, Hezkuntza Sailari atxikitako lan-kontratuko langileen lan-kategorietako lanpostuak modu finkoan betetzeko.

Hezkuntzako sailburuaren 2022ko abenduaren 20ko Agindu horren bidez, hezkuntza-administrazioaren zerbitzuko lan-kontratuko langile finko izateko egonkortzeko salbuespenezko prozesu hauetarako deialdia egin zen:

- Hezkuntza Laguntzako Langileen kategorian sartzeko merezimendu-lehiaketa.
- Transkribatzaile eta material-egokitzaile kategorian sartzeko merezimendu-lehiaketa.
- Zeinu-mintzairaren interprete kategorian sartzeko merezimendu-lehiaketa.
- Fisioterapeuta kategorian sartzeko merezimendu-lehiaketa.
- Okupazio Terapeutaren kategorian sartzeko merezimendu-lehiaketa.
- Gizarte-langilearen kategorian sartzeko merezimendu-lehiaketa.

Hezkuntza Saileko Langileriaren Kudeaketa zuzendariaren 2024ko abenduaren 26ko Ebazpenak prozesu horietan hautatutako pertsonen eta esleituko diren plazen behin betiko zerrendak argitaratu zituen.

Hezkuntza Saileko Langileriaren Kudeaketa zuzendariaren 2025eko maiatzaren 19ko Ebazpenaren bidez, argitara eman zen Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Administrazioaren zerbitzurako lan-kontratuak formalizatu behar zituzten pertsonen zerrenda, eskatutako dokumentazioa ezarritako epearen barruan aurkezteagatik (aipatutako ebazpenaren I. eranskina), bai eta, arrazoi justifikatuarekin, lortu nahi den lanpostuko eginkizunak betetzeko gaitasun funtzionala zehazten duen azterketa medikoa egin gabe zuten pertsonen zerrenda ere (ebazpen horren II. eranskina).

Bestalde, ebazpen horrek (Hezkuntza Saileko Langileriaren Kudeaketa zuzendariaren 2025eko abuztuaren 18ko Ebazpenaren bidez aldatua) argitara eman zuen ordezkoen zerrendan ageri den puntuazio-hurrenkeraren arabera hautatutako pertsonen zerrenda, enplegua egonkortzeko salbuespenezko prozesuan hautatutatzat jota, eta zegokion epea ezarri zuen egiaztagiria aurkezteko eta azterketa medikoa egiteko.

Aipatutako aginduaren 9.4 oinarrian aurreikusitako osasun-azterketan II. eranskin horretan zerrendatutako pertsonak ebaluatu ondoren, Langileak Kudeatzeko zuzendariaren 2025eko uztai-

laren 10eko Ebazpenaren bidez, argitara eman zen Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Administrazioaren zerbitzurako lan-kontratuak formalizatu behar zituztenen lehen zerrenda osagarria, lanpostuko eginkizunak betetzeko gaitzat jo zituztelako.

Era berean, Langileak Kudeatzeko zuzendariaren 2025eko irailaren 23ko Ebazpenaren bidez, argitara eman zen Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Administrazioaren zerbitzurako lan-kontratuak formalizatu behar zituztenen bigarren zerrenda osagarria (2025eko maiatzaren 19ko Ebazpenaren II. eta V. eranskinetan zerrendatuta, zeina 2025eko abuztuaren 18ko Ebazpenaren bidez aldatu baitzen).

Eskatutako baldintzak betetzen direla egiaztatu ondoren, argitara ematen da Euskal Autonomia Erkidegoko hezkuntza-administrazioaren zerbitzurako lan-kontratuak formalizatu behar dituzten pertsonen bigarren zerrenda osagarria, lortu nahi duten lanpostuko eginkizunak betetzeko gaitzat jo dituztelako.

Bestalde, ohartarazi da pertsona batek prozesua bertan behera utzi duela, hautaketa-prozeduratik eratorritako eskubideei uko egiteagatik, Langileriaren Kudeaketa Zuzendaritzan aurkeztu baitu uko egitea. Hautatutako ordezkoen zerrenda erabiltzea dakar horrek, oinarri komun 8.5.3 apartatuan xedatutakoaren arabera.

Horrenbestez, hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Argitara ematea Hezkuntzako sailburuaren 2022ko abenduaren 20ko Aginduaren bidez deitutako Hezkuntza Saileko hezkuntzako lan-kontratudun langileen kategorietako plazak modu finkoan betetzeko enplegua egonkortzeko salbuespenezko prozesuetan hautatutako izangaien hirugarren zerrenda osagarria, deialdian eskatutako baldintzak betetzen dituztelako, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Administrazioaren zerbitzuko lan-kontratuak formalizatzeko epea ezartzea. Pertsonen zerrenda hori I. eranskinean dago.

Bigarrena.– Hautatutako pertsonak (I. eranskinean zerrendatuta daude) ebazpen hau argitaratzen denetik aurrera sinatu beharko dituzte dagozkien lan-kontratuak.

Ezinbesteko kasuetan izan ezik, lan-kontratu sinatzen ez duenak galdu egingo ditu Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Administrazioaren lan-kontratudun finko izateko eskubide guztiak, deialditik eratorritzen direnak.

Hirugarrena.– Argitaratzea II. eranskinean hautaketa-prozeduratik eratorritako eskubideei uko egin dien pertsona.

Laugarrena.– Argitaratzea III. eranskinean ordezkoen zerrendan ageri den pertsona, puntuazio-hurrenkeraren arabera hautatuta, eta Hezkuntza Saileko lan-kontratudun hezitzaileen lan-kategorietako plazak modu finkoan betetzeko enplegua egonkortzeko salbuespenezko prozesuan hautatutzat jotzea, esleitutako lanpostua adierazita.

Bosgarrena.– Hamar egun naturaleko epea irekitzea, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, ebazpen honen III. eranskinean ageri den izangai hautatuak parte hartzeko baldintza orokorrak eta espezifikoak betetzen dituela egiaztatzen duten dokumentuak aurkez ditzan. Baldintza horiek Hezkuntzako sailburuaren 2022ko abenduaren 20ko Aginduaren 2.3 oinarrian daude adierazita.

Dokumentazioa hemen aurkeztuko da: Hezigunea (<https://hezigunea.euskadi.eus>) («Era-biltzailea» eta «Pasahitza» sartuz) – «Eremu pertsonala» – «Izapideak langileen sailarekin» – «Tramitagune-Administrazio-espeditenteak» – «Ireki espeditente berria» – «Gainerako izapideak» – gaian «EPE 2022. Lan-legepeko hezitzaileak. Dokumentazioa entregatzea» adieraziz.

Ebazpen honen IV. eranskinean, zinpeko adierazpenaren eredia argitaratzen da, bai eta «Hautatuek agiriak entregatzeko» eredia ere. Eredu hori ere, bete eta adierazitako helbidean aurkeztu beharko da.

Aipatutako epearen barruan, ezinbesteko kasuetan izan ezik, agiriak aurkezten ez baditu, edo agiri horiek aztertuta ikusten bada deialdiaren 2. oinarrian eskatutako baldintzaren bat betetzen ez duela, edo dagozkion zereginak betetzeko eskatzen den gaitasun fisiko edo psikikoa ez duela, ezin izango du lan-kontratuko langile finko bihurtu, eta bere jardun guztiak baliogabetuta geratuko dira, hargatik eragotzi gabe eskaera faltsutzeagatik izan dezakeen erantzukizuna.

AZKEN XEDAPENETAKO LEHENENGOA

Ebazpen honen aurka interesdunek gora jotzeko errekurtsioa aurkez diezaioke Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordeari, ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik hilabete igaro baino lehen, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean ezarritakoaren arabera.

Vitoria-Gasteiz, 2026ko apirilaren 23a.

Langileriaren kudeaketa zuzendaria,
UNAI NIETO MARIJUAN.

I. ERANSKINA

Kategoria: Hezkuntza-laguntzako espezialista.

Txanda: Orokorra.

NAN	Abizenak eta izena	Adjudikazioa		
***8184**	Egaña Vicente Josune	Berritzegune A02	3470 – 108	PL1 S.V.
***0286**	González Abecia, Miriam	Berritzegune A01	3470 – 654	PL1 S.V.
***7854**	Amorrortu Juez, Nuria	Berritzegune B08	3470 – 342	HLEA
***7162**	Sololuze Urizarbarrena Oihana	Berritzegune A02	3470 – 704	HLEA
***6549**	Fernández Zunzunegui, Alazne	Berritzegune B05	3470 – 667	HLEA
***9190**	Ruíz de Galarreta Arbiza, Leyre	Berritzegune A01	3470 –15	HLEA
***5568**	Mendiburu López, Aiora	Berritzegune A02	347 0– 608	HLEA

Kategoria: Zeinu Hizkuntzako Interpretea.

Txanda: Orokorra.

NAN	Abizenak eta izena	Adjudikazioa		
***4567**	Rebollo Uriarte, Jaione	Delegación Álava	3469 – 5	HLEA

II. ERANSKINA

Kategoria: Hezkuntza-laguntzako espezialista.

Txanda: Orokorra.

NAN	Abizenak eta izena	Adjudikazioa		
***5650**	Lasarte Hidalgo, Gurutze	Berritzegune A01	3470-34	HLEA

2026ko maiatzaren 8a, ostirala

III. ERANSKINA

Kategoria: Hezkuntza-laguntzako espezialista.

Txanda: Orokorra.

NAN	Abizenak eta izena	Guztira	Adjudikazioa		
***7306**	Usabel Urien, Zorion	48,5490	Berritzegune A01	3470-34	HLEA

IV. ERANSKINA

2022KO EPE. EGONKORTZEKO SALBUESPENEZKO PROZESUA (HEZKUNTZAKO LAN-LEGEPEKO HEZITZAILEAK)

HAUTATUEK AGIRIAK ENTREGATZEKO

Abizenak:		
Izena:	NAN:	Telfonoa:
Kategoria:		
Hautatua izan naiz Hezkuntza sailburuaren 2022ko abenduaren 20ko Aginduaren bidez deitutako egonkortzeko salbuespenezko prozesuan; hori dela eta, honako agiri hauek aurkezten ditut:		
Aurkeztuko dituzun dokumentuen zerrenda		
<input type="checkbox"/> Kategorian sartzeko eskatutako titulua edo jaulkitzeko eskubideak ordaindu izanaren ziurtagiria.		
<input type="checkbox"/> Nortasun Agiri Nazionala edo, atzerritarra bazara, dagokion dokumentua.		
<input type="checkbox"/> Zinpeko aitortpena edo agindua.		
<input type="checkbox"/> Desgaitasun txanda: organo eskudunetako ziurtagiria, izaera hori aitortzeko (33% desgaitasuna).		
<input type="checkbox"/> Epai irmo baten bidez sexu-askatasun eta sexu-ukigabetasunaren aurkako delituren bategatik zigortuak izan ez direla adierazten duen ziurtagiria, Sexu Delitugileen Erregistro Zentralak egina.		
Data, tokia	Izenpetua	

Langileak kudeatzeko zuzendariarentzat. Hezkuntza saila.

2022KO EPE. EGONKORTZEKO SALBUESPENEZKO PROZESUA (HEZKUNTZAKO LAN-LEGEPEKO
HEZITZAILEAK)

ZINPEKO AITORPENA

Nik.....

NAN.....

Zinpeko aitortpena edo agindua EGITEN DUT edozein administrazio publikoren edo atonomia-erkidegoetako konstituzio- eta estatuto-organoen diziplina-espeditente bidez zerbitzutik kentzeko zehapena jaso ez izana, eta ebazpen judizial bidez enplegu edo kargu publikorako desgaitzeta absolutua edo berezia jaso ez izana, banantzeko edo desgaitzeko subjektua izan den funtzionarioen kidegoan edo eskalan sartzeko.

.....a(n), 2025eko.....rena

Izpta.:

Nazionalitate espainolik ez duten izangaiek betetzeko:

Nik.....

NAN.....

Zinpeko aitortpena edo agindua EGITEN DUT zinaren edo promesaren azpian desgaitzeta-egoeran edo egoera baliokidean ez egotea, eta(e)an (estatuaren izena) enplegu publikora iristea eragozten didan diziplina-zehapenik edo baliokiderik ez izatea, baldintza berberetan.

.....a(n), 2025eko.....rena

Izpta.: